



# NEWSLETTER

## JOKOAREN EUSKAL BEHATOKIA

2023ko uztaila

4. Zenbakia



### INFOPLAY saria Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari

INFOPLAY argitalpen digitalak Joko Arduratsuaren eta Erantzukizun Sozial Korporatiboaren V. Sariak antolatu zituen joan den martxoan Madrilgo *Teatro Real*-en. Jardunaldiko sarien artean, **"Joko arduratsuekin konpromiso handiena duen erakunde autonomikoa"** aitortzen zuena eman zen. Edizio honetan, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari eman zitzaion saria, azken garaian egindako lanagatik.

Aitor Uriarte Unzalu Zuzendariak saria jasotzeko ardura izan zuen. Bere hitzaldian, sailen arteko lankidetzak, adostasuna eta sinergia nabarmendu zituen, helburu berdina lortzeko nahian.

Sariaren epaimahaia ia hogeita hamar pertsonen osatuta dago, erakunde eta entitate desberdinetako jokoaren arloan adituak direnak.

### AURKIBIDEA

#### Berriak

INFOPLAY Saria Joko eta Ikuskizun zuzendaritzari ..... 1

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuen autodebekatuen erregistroaren interkonexioa ..... 2

Eusko Jaurlaritzak 100.000 € bideratuko ditu ludopatia prebenitzeko eta joko arduratsua sustatzeko..... 2

#### Elkarizketa

Aitor Uriarte Unzalu, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaria ..... 3

#### Jokoaren adierazleak

Kudeaketa pribatuko kirol-apustuen bolumena ..... 4

ONCEn jokaturako kopuruak .....4

Ikuskapenak ..... 5

## B E R R I A K

### **Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak jokoaren autodebeku erregistroak elkarri lotzeko akordioa sinatu dute**

Gobernu Kontseiluak ekainean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, Segurtasun Sailaren bitartez, eta Estatuko Administrazio Orokorrak lankidetzahitzarmen berri bat sinatzea. Interkonexio-sistema automatizatu bat ezartzea da helburua, jokoan sartzeko debekuen erregistroetan egindako inskripzioak aitortzeko.

Neurri hori administrazioen arteko lankidetzan jarraitzeko konpromisoaren barruan sartzen da, joko arduratsuen eta joko problematikoaren aurkako borrokaren alde. Bi egituren arteko konexioaren bidez ziurtatuko da erregistratutako pertsona orok Estatuaren lurralde osoan izaera hori izan dezakeela.

Helburu hori modu eraginkorrean betetzeko, Jarraipen Batzorde bat sortuko da, bi Zuzendaritzetako langileek osatua, Autonomia Erkidegokoak eta Estatukoak, eta gutxienez urtean behin bilduko da. Hitzarmena lau urterako onartzea aurreikusi da.

### **Ludopatia prebenitzeko eta joko arduratsua sustatzeko programetara 100.000 € bideratzea onartu du Eusko Jaurlaritzak**

Urtero lez, Gobernu Kontseiluak irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzendutako dirulaguntzen deialdi berri bat onartu du, Euskadin joko patologikoaren sentsibilizazio, informazioaren zabalkunde eta prebentzio unibertsaleko proiektuak babesteko.

Horregatik, 100.000 euroko laguntzen deialdia egiten da, Euskadin joko arduratsua bultzatzeko hezkuntza-kanpainak edo prebentzio- eta laguntza-programak egiteko. Halaber, laguntzen helburua joko patologikoa prebenitzeko neurriak eta horren ondorio zuzenenak babestea da.

Dirulaguntzen azken xedeak Eusko Jaurlaritzak joko kontziente eta osasungarriaren alde dituen politikak sakontzea du helburu, herritarrei informazioa emateak duen garrantzia ahaztu gabe.

Laster, informazio guztia Eusko Jaurlaritzaren webgunean egongo da eskuragarri.





# Elkarrizketa Aitor Uriarte Unzalu

## Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun zuzendaria

Aitor Uriarte Unzaluk ibilbide luzea egin du kudeaketa publikoaren arloan. Antolaketa-teknikari eta EAJ-PNVren Araba Buru Batzarreko kudeatzaile gisa hasi zuen ibilbidea 1986an, eta funtsezko zeregina izan zuen antolaketa-kudeaketan. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Garraio zuzendari izan zen 1998tik 2005era. 2006 eta 2009 artean, lehen aldiz, Joko eta Ikuskizunen zuzendari kargua hartu zuen, eta 2013an berriro ekin zion, gaur egun arte

**Zuzendari gisa egin duzun ibilbide luzean, nola ebaluatzen duzu jokoaren sektoreak izan duen bilakaera Euskadin? Azken urteotan aldaketa esanguratsurik eman da?**

Euskadin jokoaren sektoreak hobekuntza nabarmenak izan ditu azken urteotan, batez ere 2022an Erkidegoko Jokoaren Araudiaren azken aldaketa indarrean sartu zenetik.

Eusko Jaurlaritzak sektoreko lege-esparrua eguneratzeko eta indartzeko lan egin du, gardentasuna eta jokalarien babesa bermatzeko. Jokoaren Araudiaren berrikuspen horri esker, joko-ingurune seguruagoa eta arduratsua sustatu ahal izan dugu.

Gainera, ahalegin handiak egiten ari gara jokoaren sektorean gizarte-erantzukizuna sustatzeko. Urtero, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta elkarteek joko patologikoari buruzko kontzientziazio-kanpainak eta prebentzio-programak abian jartzeko dirulaguntzak ematen ditugu, herritarrek jokoari lotutako arazoak ezagutu ditzaten.

Lan hori industriarekin eta sektorearen hazkundera jasangarria, arduratsua eta sozialki onargarriak diren marjinen barruan izango dela bermatzeko interesa duten erakundeekin lankidetzat estuan egiten jarraituko dugu.

**Beste lurralde batzuetan ez bezala, Euskadi aitzindaria izan da Jokoaren Euskal Behatokia martxan jartzen. Zergatik sortu behar izan da azken hau?**

Euskadi, hain zuzen ere, aitzindaria izan da Jokoaren Euskal Behatokia ezartzen, gure lurraldeko jokoaren egoeraren etengabeko jarraipen espezializatua egitea ahalbidetuko duen gune bat izateko helburuarekin.

Behatokia sortzeak jokoaren sektorearen portaerari, joerei, ondorio sozial eta ekonomikoei eta ezarritako politiken ebaluazioari buruzko informazio eguneratua eta zehatza bilduko duen tresna bat izateko beharri erantzuten dio. Horrela, erabaki informatuak eta errealitatera egokituak har ditzakegu, ingurune segurua eta arduratsua sustatzeko jokoaren esparruan.

**Zeintzuk dira Jokoaren Euskal Behatokiak egiten dituen ekarpen nagusiak? Zein neurritan Joko Zuzendaritzak ekintzak behar bezala garatzen eta ezartzen laguntzen du?**

Jokoaren Euskal Behatokiak ekarpen garrantzitsuak egiten ditu Eusko Jaurlaritzaren Jokoa Arautzeko Agintaritza gisa egiten dugun lanean. Lehenik eta behin, Euskadiko jokoaren egoeraren diagnostiko zehatzagoa izateko aukera ematen digu, datu estatistikoak, joko-arazoaren prebalentzia-azterketak eta eragin ekonomiko eta sozialaren azterketa barne. Informazio horrek laguntzen digu datuetan oinarritutako erabakiak hartzen, oinarririk ez duten uste edo pertzepzio okerrak baztertuz, politika eta neurri arautzaileak diseinatuz.

Gainera, Behatokiaren *lanari* esker, jokoari lotutako problematika posibleak goiz detekta ditzakegu, eta, ondorioz, prebentzio-ekintza eta esku-hartze egokiak har ditzakegu, biztanleria zaurgarriena babesteko. Halaber, ezarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko, hobetzeko arloak identifikatzeko eta gure estrategiak etengabe doitzeko aukera ematen digu.

Laburbilduz, Jokoaren Euskal Behatokia ezinbesteko tresna da, joko arduratsua sustatzen duten politika eraginkorrak garatzeko eta ezartzeko funtsezko informazioa ematen diguna. Horrela euskal herritarren osasuna eta ongizatea babestuz.

# JOKOAREN ADIERAZLEAK

## 1. KUDEAKETA PRIBATUKO KIROL-APUSTUEN BOLUMENA EUSKADIN (2019-2022)

Azken lau urteetako bilakaera aztertuta, COVID-19ak eragin negatiboa izan zuen kirol-apustuen bolumenean. 2019tik 2020ra apustuen kopurua murriztu zen, batez ere aurrez aurreko bertsioan. Hala ere, 2021etik aurrera sektorea suspertu egin da.

2022an, itxitako azken urtea, kudeaketa pribatuko kirol-apustueta jokaturako dirua 382.360.541 €-koa izan da. Kasu horretan, % 57 aurrez aurreko apustuei zegokien, eta % 43 online modalitateari. Termino absolutuetan online negozioa hazi bada ere, guztizkoaren gaineko ehunekoa presentzialaren azpitik dago.

		2019	2020	2021	2022
<b>Araba</b>	Aurrez-aurre	36.164.636	24.566.849	33.599.551	38.435.459
	Online	23.086.900	24.379.532	23.449.823	21.898.083
	<i>Araba guztira</i>	<i>59.251.536</i>	<i>48.946.381</i>	<i>57.049.374</i>	<i>60.333.542</i>
<b>Bizkaia</b>	Aurrez-aurre	114.759.132	68.289.574	96.633.330	113.215.408
	Online	74.643.396	72.028.217	81.784.145	79.060.742
	<i>Bizkaia guztira</i>	<i>189.402.528</i>	<i>140.317.791</i>	<i>178.417.475</i>	<i>192.276.150</i>
<b>Gipuzkoa</b>	Aurrez-aurre	71.969.185	43.761.906	63.122.402	66.210.228
	Online	56.017.219	56.694.241	62.086.328	63.540.621
	<i>Gipuzkoa guztira</i>	<i>127.986.404</i>	<i>100.456.147</i>	<i>125.208.730</i>	<i>129.750.849</i>
<b>Euskadi</b>	Aurrez-aurre	222.892.953	136.618.329	193.355.283	217.861.095
	Online	153.747.515	153.101.990	167.320.296	164.499.446
	<b>Euskadi guztira</b>	<b>376.640.468</b>	<b>289.720.319</b>	<b>360.675.579</b>	<b>382.360.541</b>

Iturria: Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren Memoria

## 2. EUSKADIKO ONCEKO APUSTU, LOTERIA ETA AUSAZKO JOKOEN GASTUAK (2019-2022)

	2019	2020	2021	2022
<b>Kupoia</b>	49.773.977	32.470.342	44.559.297	31.433.241
<b>ONCEren berehalakoak</b>	14.117.517	10.616.239	16.265.975	11.268.256
<b>ONCEren joko aktiboak</b>	6.329.507	4.675.974	6.983.439	5.916.594
<b>ONCE GUZTIRA</b>	70.221.002	47.762.556	67.808.711	48.618.090

Iturria: ONCE Euskadi (estatistika zerbitzua)

ONCEk Euskadin 2022an izan duen jokokopurua 48.618.090 €-koa izan da, 2021eko negozio-bolumenaren azpitik. Kupoia da oraindik diru-sarrera handienak sortzen dituen joko-modalitatea (guztizkoaren % 64,6).

Beste bi modalitateen kasuan, biek ere murrizketa izan dute, 2020ko kopuruetatik gertuago. Modalitate horien artean, bat-batekoak nabarmentzen dira, Rasca gisa ezagutzen direnak, 2022ko negozioaren %23 hartzen baitute.

# JOKOAREN ADIERAZLEAK

## 3. LOKAL MOTAREN ETA URTEAREN ARABERA EGINDAKO IKUSKAPENAK

	2019	2020	2021	2022
<b>Kasionoak</b>	167	79	123	125
<b>Bingoak</b>	201	138	210	229
<b>Joko eta jolas-aretoak</b>	682	567	989	805
<b>Apustu-lokalak</b>	55	55	54	29
<b>Ostalaritzako makinak</b>	3.796	887	1.495	1.368
<b>Jokoaren zaintza eta kontrola</b>	970	854	483	672
<b>Baimen espezifikoak duen jokoaren zaintza eta kontrola</b>	--	--	100	82
<b>Guztira</b>	5.871	2.580	3.454	3.310

Iturria: Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren Memoria

Lokal motaren arabera egindako ikuskapenen kopurua aldatu egin da azken urteetan. 2019an egin ziren ikuskapen gehien, eta 2020an, berriz, nabarmen egin zuten behera. Hori COVID-19ak sortutako egoera bereizgarriagatik izan zen.

2021ean eta 2022an ikuskapenei ekin zitzairen berriro, baina aldaketa txiki batzuekin eta ostalaritzako makinetan egindakoen beherakada nabarmenarekin. Bestalde, urte horietan berrikuntza gisa sartu ziren jokoak zaintzeko eta kontrolatzeko ikuskapenak, baimen espezifikoarekin.

Gehitu

**[jokoareneuskalbehatokia@euskadi.eus](mailto:jokoareneuskalbehatokia@euskadi.eus)**

zure helbide-liburura, Jokoaren Euskal Behatokiaren berri guztak jasotzeko.